

## IRAKASLEAK

- **EPE 2020.** Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epea: ekainaren 1etik 5era.

**Onartezina da oraindik azterketaren data ez jakitea.**

- **ZERBITZU EGINKIZUNAK.** Zerbitzu-eginkizunak eta klase-orduen 1/3ko murrizketak baimentzea osasun arrazoiengatik eta hautetsia izateagatik. [Informazioa web orrian.](#)

**Eskaera aurkezteko epea:** 2020ko ekainaren 1etik 7ra arte.

- **OPORRALDIAREN ORDAINKETA.** Gogoratu!!! Ekainaren 30a baino lehen izendapena amaitu bazaizu eta udako ordainketa hasten denean (uztailak 1), izendapena eta Gizarte Segurantzaren altan ematea eragozten dituen aldi baterako ezintasun, amatasun, harrera, adopzio edo aitatasun egoeran bazaude, uztailaren 1a baino lehen egoera hori dagokion Lurralde Ordezkaritzan justifikatzeko agiriak aurkeztu behar dituzula.

[Informazioa eta izendapena atzeratzeko eskaera web orrian daude.](#)

**Administrazioak ez du kontuan hartu uda kobratzeko behar diren egunak 105era jaisteko eskaera**

- **URTE SABATIKOA.** Eskaerak aurkezteko epea berriz ireki da: ekainaren 1etik abuztuaren 17ra. [Eskabide orria](#)

- **ADI EGON** Hezkuntzako web orrian ateratzen diren berriei, datozen egunetan argitaratu beharko lirateke: lekualdatze lehiaketako behin behineko esleipena, adinagatik lanaldi lektiboaren murrizketa egiteko eskaera, zerbitzu-eginkizun batzuk.... [Berriak ikusi](#)

**IKASLEEN HEZKUNTZA ESKUBIDEA ETA LANGILEEN LAN BALDINTZAK**

**BERMATZE ALDERA, DATORREN IKASTURTERAKO BALIABIDEAK BERMATU!!!**